

GERMAN ALDEKOA ❶ DANTZA IRAKASLE ETA TXISTULARIA

«Lehen, dantzariak aukeratu egiten ziren; gaur egun, denak behar dira»

Berrizko San Pedro eta Santa Isabel egunetako dantzari-dantza gidatzen du German Aldekoa txistulariak.

OIER ARAOLAZA - BERRIZ

San Pedro eguna jaietako egun handia da Berrizen. Dantzari handien jaietako izan da Durangaldea eta Euskal Herri osoko dantzariak bilatu izan dute eredu bertan. Alejandro Aldekoa izan da Berrizko azken dantza maisua eta txistularia, eta haren lanak oihartzun zabala izan du dantzaren munduan. German Aldekoa semeak hartu zion aitari txanda. San Pedro eguneko dantza lanak bukatuta, bihar, uztailak 2, izango da berriz dantzari-dantza Berrizko plazan, Santa Isabel egunez.

Aitarekin hasi zinen zu txistua jotzen?

Bai, aitarekin ibiltzen nintzen atabalajotzen. Aita hil zenez gero hasi nintzen txistulari, orain 8 urte. Baina aurretik dantzari izan nintzen. Aitarekin txistua, atabala eta dantza ikasi nituen. Hamalau hamabost urterekin, lehengo dantzari zirenak soldaduskara jotzen hasi zirenean, ordezko gisa hartu ninduten; soldadu zegoena ezin bazen etorri, niregitegunen.

Noiz hasten zarete sanpedroetako dantza saioak prestatzen?

Hilabete arinago. Udalak deia egiten du, sanpedroak datozela eta dantza egin nahi duenak izena emateko. Lehen aukeraketa egiten zen. Herrian denak dantzariak ziren, baina San Pedro egunean zortzik egun behar dute dantzan bakarrik, eta handik, hogeitik esaterako, zortzi aukeratu behar. Baina gaur egun denak, etortzen diren guztiak, behar dira. Hamabi-hamalau etortzen bada, denak hartzen ditut eta entseguak egiten ditugu denekin. Orain asteguna da San Pedro eguna, lanean dabilta batzuk eta ezin dute dantza egin eguerdian, beste batzuek iluntzean ezin dute, txandaka dabiltzalako lanean, gausez dabiltzalako. Horregatik, aukeratu gabe, etortzen diren denak hartzen ditugu.

Dantzan ikasita iristen dira dantzariak.

Bai, hemen bi talde daude eta taldeetan dabiltzanak etortzen dira. Talde bat gure aitak beti izan zue-na da: San Lorentzo. Eta besteak Iremiñe da. Hor ibili ziren maisu gure aitaren taldean ikasitakoak. Ez dakienik ez dator. Bospasei entsegu egiten dira, baina dantzari-dantza denak dakite.

Dantzari gazteak ondo prestatuta etortzen dira?

Dantzan ondo egiten dute. Beti dago bat edo bat pausoren batean ohitura txar bat hartuta daukana, eta ohitura hori kentzea kosta egiten da. Grabilletea, esate baterako, batzuek ez dute egiten polit-polita. Zirkularra izan behar da, garbi-garbia, eta ostikoka bezala egiten dute batzuek, baldar.

San Pedro egunean hasi eta Santa Isabel egunean bukatu, dantza asko egiten da egunotan Berrizen, ezta?

San Pedro bezperan donien atxa altxatzen dute dantzariak eta, ondoren, entsegu nagusia egiten da. San Pedro eta Santa Isabel egunetan, eguerdian, meza amaitzen denean, alkatearekin eta zinegotzietekin plazara kalejiran sartu, eta arkuak egiten dute dantzariak. Gero dantzari-dantza eta soka-dantza edo erregelak egiten dira. Soka-dantzan andreak atera behar dira. Nortzuk atera behar diren alkateak begiratuta edukitzen du, eta hark esaten die dantzariari. Lehen behintzat oso garrantzitsua izaten zen, ohore handia zen aurrekuak ateratzea. **Urteekin dantza egiteko modua aldatu da?**

Aldatu da, bai, dantza egiteko modua, ohitura txarrak hartu direlako. Grabilletearekin pasatzen da, artaziarekin ere bai. Artaziak egiteko hemen, Berrizen, ostikoa izan behar dela esaten da. Hau da, hanka lehenengo jaso belaueraino, eta gero belaueratik ostikoa erkin punta gora kolpe batean. Noski, hori minbera da, izterrentzat gogorra da. Batzuek ohitura dute zuzen-zuzen, hasi barrenetik eta belaur eta guzti puntara zuzen jasotzeko. Hori ez da izan horrela lehen hemen, baina orain batzuk horrela ohitu dira eta ez zaie esaten ezer. Noski badaude ostikoa erkin, ondo, egiten dutenak ere. Gogorra da. Ni egonda nago izter dena beltz-beltz eginda eta herrenka. Orain berotu egiten dute, izterra eta hankak osorik, baina gure sasoiaren ez zegoen horrelakorik. Jantzi, txilinar ipini, hartu makila eta ezpata, plazara irten eta gora hanka! Normala horrelakoa pasatzea. Orain beroketak egiten dituzte eta eskerrak.

Zuk txistua jo eta erne jarraitzen diezu dantzariari dantzan ari direla.

Dantzariari begira egoten naiz.



ANDONI CANELLADA / ARGAKZI PRESS

Bata da bizkorragoa, bestea pixka bat geldoagoa. Dantzariak artazia bota eta nik itxoiz egin behar, horrelako gauzak pasatzen dira. Musikari jarraitzeko belarria izango dute, baina beti du tankera batak edo besteak bizkorrago edo astiroago egiteko. Ni begira egoten naiz, bakoitzari segitzen. Aurrekuak, bazterrean geldu egon beharrean, ni plazan sartu eta dantzarien ondoan ibiltzen naiz. Nire aita hasi zen hori egiten, lehengo txistulari zaharrei umetan ikusia zielako.

Plazan begira dauden asko dantzari izandakoak izango dira...

Bai. Ez diet entzun kritikarik, baina hankasartzeren bat dagoe-nean igarriko dute. Aurrekuak egiten denean, esate baterako, luze samarra da eta edozein momentuan gerta daiteke galtzea. Nik dantza dakidanez, dantzariak egiten duena eginda, nik jarraitu egiten diot. Ez dakienarentzat ez da ezer pasatu, baina dakienak ikusiko du, bai. Ez du esango ezer, baina konturatu bai...

Garai batean Berrizko dantzariak fama handia izan zuten.

Bai, Londresen eta Parisen ibili

ziren. Horietako batek, 70 urte-tik gora ere, aurrekuak egiten zuten eta hanka gainera gazte askok baino gorago altxatzen zuten. Hark bere sasoiaren, 20-21 urterekin, airean buelta bi emanen zituen. Leandro zen hura. Orduan, talde famatu hartan zortzitik zortzi ziren onak, baina lau edo bost hori modukoak. Horrelako talde bat suertatzea ehun urtetik behin ere ez da gertatzen ziur asko.

Jende asko etortzen da ikustera eta galderak egitera?

Sasoi batean, San Pedro eguna toki guztietan jaiegun zenean, bai, orain gutxiago. Bilbotik Sabin Egiguren, Sabin Bikandi, Galdakaoko Andramariko Arte-txetarrak, Donostiatic Argiakoak Juan Antonio Urbeltzekin ere hemen egon ziren ikasten 60ko hamarkadan. Ni garai horretan dantzari nenbilen. Guk beti ondo hartu ditugu hona etorritakoak. Esan izan digute nonbait ez dutela uzten grabatzen, baina nik hemen beti ikusi dut, aita zenean ere bai, kamerak ipini eta grabatu arazorik gabe, eta nik ez diot debekatu inori ere.

FOKUEN AZPIAN

Agus Perez



Alboko ekitaldiak

Pasa den ostiraleko zutabea gertatu behar ez zena gertatu zen, hau da, nik kezka agertzeari Donostiako Antzerki Ferian alboko ekitaldirik ez izateagatik eta hurrengo egunean izatelezkoko ekitaldi zerrenda jasotzea. Beraz, derrigorrezkoa zait okerra zuzentzea eta lerro hauetan jasotzea Feriak eskaintzen dituen jarduera osagarriak.

Alboko ekitaldi batzuk Feriaren aurreko egunetan izan dira —mahaingururen bat, azoka-gunean eguneroko izan diren aurkezpen batzuk, irakurketa dramatizatua, atzo hasi eta gaur amaitu beharreko antzerki ikastaroa...—, baina oraindik gauza asko gertatzen da aurrean ditugun bi egunetarako. Haien artean, erakusketak aipatuko ditugu lehendabizi: alde batetik, San Jeronimo kaleko Ekitaldi Aretoan Peruko Los Grumildos taldeak 14 txotxongilo mekaniko paratu ditu panpina-etxe itxurako instalazio batean eta, bestetik, Kursaalaren dugu La Zaranda talde mitikoaren mundu malenkoniatsu eta onirikora hurbiltzeko aukera.

Beste esparru batera joanda, bi mahainguru izango ditugu gaur bertan: Santiago Sanchezek moderatu behar duena istorioak kontatu eta entzun behar diren inguruko izango da, baina bestea —Madrilgo Arte Eszenikoaren Emakumeen elkartearena— askoz interesgarriagoa iruditzen zait, lanbide honetako emakumeen ikuspegi ezagutu ahal izateko.

Feriaren helburuetariko bat da arte eszenikoetan jarduten dutenentzako elkargunea izatea. Helburu beharrezkoa, inondik inora, eta nik uste dut egunotan antolatutako bilera profesionalak (Sarea, Eskena...) lagunak izan daitezkeela esperientziarik trukatzeko sektoreak dituen arazoen aurrean.

Amaitzeko, aipamen berezia gorde nahi izan dut aurretik hasitako Victoria Eugenia sarietarako. Sariak emateak Feriaren distira areagotu ahal du eta, eta gainera nahiko egoikiak dira aurretik saritutakoak: munduan ezaguna den Deabru Beltzak taldea eta Kolonbiako Manizales jaialdi aitzindaria.